Mugarri estaliak

Castillo Suarez

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2000 Castillo Suarez
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2000ko urria
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Bidaia antolatuak

Bonba bat daukat ene bihotzean
eta segituan eztanda egingo du.
Ez zaitez badaezpada ondoan jar
bihotz puskaren batek harrapatuko zaitu bestela
eta nire seguruak ez ditu horrelakoak ordaintzen.
Autogupidaz betetako emakume bakartiak
ez gara oso osasuntsuak;
are gehiago, gure gaitza kutsakorra da eta,
halabeharrezkoa denez bizitzea,
pena litzateke zuk nire eritasuna harrapatuko
bazenu,
oraindik txertorik ez baita aurkitu horretarako.

Normalitatea Belfasteko kaleetan
Emakumeak autobusaren zain
Batzuek leihotik begiratzen dute arretaz
Ordenagailuan idatzi eleak ez dira poesia
Poesia hormetan idatzita dago
Andreok ez dira konturatzen ordea
Haiek ez dakite Bobby Sands poeta zela
Nik «Zaharra zara Bilbo» kantatzen dut nire
kolkorako
Ba al dakite non dagoen *Basque Country*?
Bilbo bai jakina
Bilbon Guggenheim Museoa dago.

Poztuko nintzateke
negar egin duzula jakitean.
Gustatuko litzaidake
zure malkoak ikustea
masailetatik behera irristatuz.
Bakarrik zaudela ikustean
mespretxuzko begirada bota nahiko nizuke,
nire gorroto guztia islatuko lukeen
begirada sarkorra.

Nik beste sufritzea nahi dut
nik beste maite ez nauzulako.

Ametsak hiltzen dira
palmondo baten pean
eta hiltzaileak
hamazortzi urteko neskato bat
bahitu du
bere begi urdinekin.
Nik ez dakit zein den
pagatu beharreko erreskatea.
Euskal Herriko lorategi batean
usteltzen diren palmondoek
erakutsi didate
Al Kahira-ko argia
gehiegizkoa dela
promesak betetzeko.

Hegazkina hartu.
Zer egin nezakeen bestela?

Hitz debekatuak
asfalto bustian
desegiten dira
eta laino bihurtzen
edo fosforo hautsa.
Bizkarra miazkatzen dizut
nire galdera guztiak ezabatuz
eta berriak eginez,
jakinda
erantzunak
poeta zaharren hitzetan baino
ez ditudala aurkituko,
inoiz ez zure ezpainetan.
Atzoko mina berpizteko beldurrak
amildegiraino eramaten gaitu
horditurik,
gure nahi guztiak
puzten dituen
horditasuna...
Berriz musukatuko ez ditugun ezpainek
gure gogoan hartzen dute bizileku
hilero alokairua ordaintzen.

Eta nire neuronen argindarrarekin
zentral elektrikoa eraikiko dut
elektrizista on batek
zirkuitu egokia egin dezan.

Eta deprimitu guztien enbaxadore
izendatuko dut neure burua
gomuta gozoen itsasoaz bustitako lurraldeetan
bizi direnen eskubideak
errespetatuak izan daitezen.

Eta noraezean dabilen marinela izanen naiz,
etxera bueltatzen ez dena,
behin lurrean egonda
berriz itsasoratuko ez dela badakiena.

Eta malenkonia eta maitasunezko ekuazioak
egiten dituen matematikoarengana
abiatuko naiz
erantzun guztien galderak ezagutzeko asmoz.

Gure gogoaren kaxoiak
giltzaz ixten ditugu
aro berriak
behin eta berriz irekiz.
Ez dakigu ezin dela
deus ere ahaztu;
beste kaxoi batean
sar dezakegu bizitakoa,
besterik ez.

Pentsamenduak
ordenatzen ditugu
horien artean
zein den okerra
jabetzeko,
ohartu gabe
ez dagoela
pentsamendu okerrik,
lotura makurrak baizik.

Etorkizunerako planak
egiten ditugu
jabetu gabe
erabakirik garrantzitsuenak
oharkabean
hartzen direla.

Egin ezazu behar duzuna
duintasunez bada;
pentsa ezazu nahi duzuna,
ni zure alde egongo naizela beti
gure ametsak lili kolorekoak direla
badakidalako aspaldi.
Eta astero-astero
40 minutuz begiratuko ditut
zure begi urdinak
kristal baten atzean.
Eta ulertzen ez badut ere
maiteko zaitut
betiko.

Frigorifikoan laranja zimelduak egunkari orrialdeetan bildurik.
«Banoa, lana daukat» ohar zimurtua bioleta olioz bustita.
Kafea. Nirekin hartu nahi al duzu bat?
Dena itsaskor. Dena zu.
Dena lanera joateagatik. Dena sukalde zikinean.
Noiz hartuko dute atseden burla egiten duten erromes galduek?
«Nirekin etorriko zara egunen batean, udaberrian-edo, eguraldi hobearekin».
Vendo Volvo 440. Buen estado.

Ez dut sekula tangorik dantzatu.
Horregatik edukitzen ditut giltzak hatzen artean,
behar ez ditudala jakinagatik.
Hilotza ikusteko ilara konfliktiboa desegin zen
egunean
ez zintudan ikusi plazan paseatzen.
Esanen nizukeen:
«Erakutsi dakidan guztia,
ez dakidana ez baitut jakin nahi».
Se necesita pescadera en hipermercado de
Pamplona.

Treneko irakurleak:
liburua besapean eramaten dutenak
ingurukoek ikus dezaten
zeinen intelektualak diren.
Loak hartzen ditu
eserleku gogorretan
eta amets egiten dute
ametsak eskuragarriak balira bezala.
Amets kimikoak
izaten dituzte,
serotoninaren jario artifiziala
eragiten dituzten horiek.
Geltokietan eros daitezke
nahi izanez gero
treneko irakurleak bezain faltsuak diren
amets kimikoak,
irakurleok lerroen artean bilatzen
saiatzen badira ere.

Kontatu didate
dagoeneko ez zarela nitaz akordatzen,
ahaztu zaizula nire izena;
niri ez, ordea.
Egunero esnatzen naute zure hitzek,
zure ahots leunak
nazioarteko albisteak kontatuz.
Pi-pi-pi egiten duten
iratzargailu horietako bat
erosteko asmoa daukat
ea niri ere zure izena ahazten zaidan.

Pentsamendua moldatzen dutenek
sortu egiten dutela esaten dute
eta oroitzapenak gordetzen ere ez dakite.
Ez dakite bidaiariak
deskubritu gabeko paisaiak
aurkitzen dituztenak direla.
Horregatik idazten dituzte bidaia liburuak
oroitzapenak gorde nahian.
Eta zertarako oroitzapenak
modernotasunaren tradizioan.
Eta zertarako «maite zaitut» efimeroak xuxurlatu,
azturaren iraungitze-data daukatenak itsatsirik.

Maite ditugu eskuliburuak
idatzitakoaren laburpena diren aldetik
eta beldur diegu poeta gazteei,
haiek baitira bidaia guztien desantolatzaileak,
gure sentimendu ezkutuekin
hipoteka etnizista-biologikorik ez dutenak.
Sendatu nahi dugu geure larrimina
sentimendu eta oroitzapen guztiak
modu zientifikoz aurkeztuz arrotzei.
Berdintasunaren teoria.
Gure bidaia iniziatikoa atzeratzen dugu
malko berrien beldurrez.
Esparruen teoria.
Gure bidaia legitimatzen duten bidelagunak
bost duroko hitzekin.
Hiru ontzien uztardura.

Teoriak

Teoria adulteratuak

Militanteak

Militante teorikoak

Utopiak

Utopia politikoak

Mugak

Muga artifizialak

Eman iezadazu maitasunaren definizio sinple bat. Esadazu zergatik ote diren hizkuntzak horren konplexuak. Bidearen zati bat elkarrekin egiten ahal dugu: turistok ezagutzen dugu etxera bueltatuko garen unea.

Metaliteratura egiteaz
akusatzen naute eta nik
poesia Gasteiztik
Iruñera doan autobusa dela
esaten diet,
Altsasun besterik gelditzen
ez dena.

Idatzi,
idatzi zerbait,
txarra dela esango badizute ere,
edo salgarria ez izanagatik.
Idatzi,
zuk idatziko ez duzuna
nik ezin dudalako
idatzi,
behin-behineko kontratuarekin
ari bainaiz zure poemak idazten.

Geltokian itxaroten ditugu
hitz xumezko trenak,
desesperatuen erresuman
greba dagoela badakigun arren.
Begirada sarkorreko neskatxek
galderak egiten dituzte.
Paradisura sartzeko biderik zuzenena
Nafud-eko basamortutik igarotzen dela
gogoratzen dute.
Lilien usain iheskorrak
aldarrikatzen dituzten testamentuak egiten ditugu.
Barrena asetzeko ele mikatzak ez dira aski,
izan ere, teilatuetan pausatzen dira
euri tantekin batera.
Gure itxura orekatua mantentzen
hiriko murraila handiak
berreraiki genituen, ihes egiteko aukerak murriztuz.
Barkamena eskatzen dugu behin eta berriro,
ezinbestekoa baitugu barkamena aurrera
jarraitzeko.

Bakarrik bizi nahi dut
aberatsen urbanizazio ordenatuetan
(Unifamiliares en Gorraiz.
Adosado. Parcela de 400m2).
Arrosa ura.
Gogoan al duzu noiz ezagutu genuen elkar?
Uholdeak urte hartan kalte handia ekarri zuen.
Ahoa odolez betea neukala ez zinen jabetu.
Ez zinen ezertaz jabetzen.
Ilea nahasiko dizut hatzez hemendik aurrera.
Zalantzaz betetako kristalezko poteak.
Azido nitrikoa.

Maitasuna zedarritzen dute

Alboan ditut kritikarien iritzi zitalak
Alboan ditut mespretxua eta indiferentzia
Alboan zu
Alboan ni

Zuk, adibidez.
Ordu atzeratuak
gordetzen zenituen sobera ere
egur gogorreko kaxa batean
odol ilunez estalirik.

Ez baitu odolak gauza oro estaltzen.
Ez baitu odolak jende guztia asaldatzen.

Batzuetan denok izaten dugu gogoa
zer eginen zenuke nire alde galdetzeko,
arratsaldetan maitasun egiaztapenak egiteko
hurrengo egunean lanera joan aitzinetik.

Zenbatetan garaiz heltzen gara
berandu heldu nahi dugulako,
maitasuna delakoan
konfirmazioa behar duen bakarra.

Nork ez ditu bide bazterrean utzi lekuko barik
begirada gordinak ustel daitezen,
ustez biografiak asmatzeko behar ez direlako,
asperdurak ohar koadernotan
islarik ez eduki arren
(soilik arrasto antzemanezinak
eta salneurriaren etiketak
atzeko aldean itsatsirik).

Sarritan sinpleegiak direlako
nahi genituzke erantzun konplexuak,
deskodetze prozesuarekin
zer egin ez dakigula.

Egunsentien babeslekuan
identifikatu gabe
arbuiatzen bazaituzte,
ez zaitezela abiatu
esparru berriak konkistatzera,
ez baitituzte bisitariak ametitzen
etsipenetik hurbil badaude.
Jo ezazu inorenak ez diren tokietara,
ni han izanen naiz
torturaren lekukoengandik ihesi,
zu bilatzeko adorerik gabe.

Zer axola du
non bizi garen,
toki guztietan
erosketa kronikoak
egin baditzakegu;
erosketa duinak,
gure soldataren mugak
hautsi gabe.
Gure bizitza
kontatzeko modukoa ez bada,
eguraldia bada
aldatu nahi genukeen
gauza bakarra,
zer axola dute
buruan eginen nizkizukeen
ferekek...
Baina, non duzu burua?

Larunbat arratsaldeetan bideoa alokatzea
nahikoa litzateke iragana birziklatzeko,
lagunei xehetasun nazkagarriak partitu ordez.
Publizitatera dedika gintezke bestela:
kanpainak irudikatu
kapitulu amaierako hutsune mingarriak betetzeko.
Alabaina, ez ginateke ausartuko lana uztera;
seietan zer egin behar dugun ez jakitera,
urdin pentsatzera,
etorkizunak abandonatuko gaituelakoan.

Esadazu gaur bertan
maite nauzunetz
konfirmatu beharra baitaukat
hesi berria paratzen hasi baino lehen...

Beti da 1985
nire auzoan
eta zin dagizut
koloredun argazkiak gordetzen ditudala.
Kale txuri-beltzak daude
eta bizilagunak galdu egiten dira
atari ezezagunen artean
turistak bailiran.
Dudatan nago.
Izan ere, baliteke nire auzoa
ez izatea nirea.

Badaude bi sentimendu oinarrizko
oinarrizkoak eta koloreztatuak
koloreztatuak eta desagerraraziak
berriz agertuak eta atzenduak
jatorrizko sentimenduak
bi aldiz aipatuak edo ikasiak

Badira behin-behineko harremanak
ez-ohiko bideak hartzera garamatzatenak
aztarnak uzten dituztenak
errugaberik ez dutenak
katastrofismorik gabekoak
behin-behineko harreman eternalak

Berritasunerako ihesaldiak
Antzuak dira
Antzuak amaigabeak direlako
Ez dagoelako
Beldur mataza amaigabeak baino
Gauza idorragorik

Ezagunak dakarren beldur baliogabeaz
Beldur neurgaitzaz
Eraikita daude ziutateak
Ziutate ordenatu bezain itogarriak

Gustatuko litzaidake
Nirea dela jakingo ez banu
Estaziorik ez balu
Nire bidaidea
Ezagutuko ez banu

Ordubete barru garraxizko suteek
itxura normaleko pertsonen bizitzak
kiskaliko dituzte.
Bila itzazue zergatiak orduan.
Errautsen artean
epaiketetan erabil daitezkeen hitz delikatuak
azalduko dira.
Norbaitek originaltasunez jokatuko du
barkamenaren kontzeptua aldarrikatuz,
bere etimologia ikertuz.
Ordubete barru edo, batek daki,
dagoeneko hasi da
modako tabernaren batean.

Oroimenean toki propioa hartu didate
lapurtutako kontzeptuek,
diskurtso kritikoa
legitimatzen dutenek
kalte-ordainik eskatu gabe.
Haatik, erretratu perfekturik ez dago;
jakituria osoaren jabeak
pertsonen arteko amildegiaz ohartuak dira.
Horiek *ongi ezagutzen ditut nik gizasemeen*
jokabideak
ezagunei kontatzen dabiltza begi drogatuekin.
Nik sistematikoki baztertzen ditut
aholkurik espero gabe,
ez baitakit ulertzen ez ditudan gauzei
nola aurre egin.

Gordintasuna saihesteko
planik ez zenuen,
sumina narkotizatua izan dadin
iragazkirik ere ez.
Ez zenekien zenbat denboraz geldituko zinen,
geldituko zinen ere zalantza zenuen,
baina beste batengan
zure puska bat aurkitzeko
esperantzaz
izenak apuntatu zenituen
liburu baten azken orrialdean,
eta inor ez da oraindik
orrialde horretara iritsi.

Gela huts bat eta mundua inguruan
Gela huts bat eta zu alboan

«Inork ezin du honetaz ezer jakin»,
alegia, munduari egokitzeaz batera
lortzen den zorionaz,
intentsitaterik gabekoa baita,
aurkikuntza asegarri eta nazkagarriak bilatzera
betiko zaudetelako kondenaturik,
kanpoan ezin aurkituz barrenean ez datzana.
Nik lehengusua daukat,
ileapaindegi batean lan egiten du,
oso pozik dago, gainera.
Duintasunez atera zaitezte kalera lantokitik
ezer gertatuko ez balitz bezala,
orduak pasatzen direlako zuek zaudetenean,
zuek ez zaudetenean pasatzen direlako orduak.

Baina poema guztiak
bakardadeaz ari dira,
isolaturik egongo ez bagina,
ez genituzkeelako lagun hartuko
eta gure 79m2-ko etxean
beren txokoa laga
ugal zitezen,
poema definitiboa aurki zezaten.
Zergatik konpartitu behar ditugu
sekretu lazgarriak
edota saihestu behar ditugu
berradiskidetze nahiak,
hiru karrileko autobiatan datozenak
atsedenik hartu gabe.
Zer dela eta dugu ezinbestekoa
elkarren berri izatea
herri desberdinetan bizitzea
erabaki bagenuen,
jende txukuna izatea
lortu nahi bagenuen

plaza biribildun hiritan.
Beharbada ez dago beste biderik
autopista ez beste.

Zu zara
gezurra esateko tentaldia,
babesik gabe geratzearen beldurrak eragin duen
nortasun interesgarria erakusteko saiakera.
Zu dira eta ez ni
familia tradizional itogarriak,
besteen istorioen asmatzaileak,
istorio propioen ikasleak,
aldaketarik gabeko istorio salgarriak finean.

Zu zara ni,
baina ez duzu nahi.

Ez dira nigana iritsi
epeltasuna barreiatzen duten gorputzak.
Gelako espazio osoa beteagatik
bat-bateko erabakiaren ikara dute eta
antiseptiko usaina barreiatzen dute nahi gabe.

Ez dakite nirekin zer egin
inoiz ez dakitelako zer.
Gorputzaren berri estatistikoak
bakarrik ezagutzen dituzte.
Ziurtagirien bila dabiltza apika
egunerokotasunari
aurre egin ahal izateko.

Orainak kendu die usaina
lore guztiei
eta mendizaleen bonbonek
oxigenoa.

Babesa eta izena galdu ondotik
aurkitu nituen nire baitan arrosa horia
eta galtzeko prest nengoen mila fereka.
Perfume lurrinduak utzitako arrasto batez
lagundurik,
arrangura hesitu nuen
askatasunak eskaintzen duen konkista odoltsuaz.
Alabaina, nire neurriko galdera aurkitzeko
esperantza gutxirekin jarraitzen dut.
Etsaien ugaltze-arriskua sumatzera kondenaturik
nago.
Apika zu zara nire etsairik handiena,
tren geltokietan beti aurkitzen dudan aurpegi
estrainioa.
Gogoeta egunetan behin eta berriz
dena ahazten saiatzen naiz horregatik.
Hilko zintuzket promesa zaharren pozoiaz,
malkoen bakarrizketa infinitoaz,
esperantzak dakarren amodio mingarriaz.
Hilko zintuzket, baina aingura daukat ene bihotzean.

Lanbroa,
maindire zikinak,
besarkadak etxe atarian.
Agian
zu zinen
desagertutako azken gorpuaren alboan zetzan
gaztea,
ahoan irribarrea zuen hura.
Larriminaren amildegian,
indarra eta ahuleziaren mugatik gertu
polizia gabeko aduana antzemanezinean...

Zugatik
hiltzen dira adierazpen publikorik gabe
sumendiak maindireen artean,
zaratarik ateratzen ez duten laztan likitsak,
begi isilak.
Esku dardaratiek
gorputzen berrezagutze mantsoa,
ortodoxiak eskatzen duen izendatzea
geldiarazten dute.
Hatz puntek nahi gabe gozamena zedarritzen duten
arren
maitasuna irakurri eta plazerra ebats
daitekeelakoan
daude nire ezpainetako zimurrak.

Hitzak datoz ate joka zaurituen paradisura
hausnartzeko beta nahikoa ematen.
Batzuk hotel itogarrietan gelditzen dira esperoan.
Besteak, aldiz, deitu gabe heldu dira,
maitasuna erabakita izaten baita dekretuz.
Barrenean gelditzen zaizkigu akanpaturik;
heriotzara kondenatzen gaituzte
maletarik gabe eta huts usainarekin.
Buruz dakizkigun hitzak dira
gure alde deus ere erraten ez dutenak
baina gotorleku hartzen gaituzte.
Dokumentu galduetan adierazitakoa
berreskuratzeko adorerik gabe dabiltza ihesi
gure nortasunaren maitasun zantzuak
ezin aditzera emanez.

Egia biribilek ez naute harrapatuko ez nautelako
ezagutzen.
Izan ere, nire ilearen kolorea ez da lehengoa
bezalakoa,
orain beltzagoa da.
Gainera, lasaitasunez eginen dut arnas
neure burua eskaparateetako kristaletan begiratuz.
Egia gordinak heldu dira,
baina ez dira kristalotan islatuko
aitorpenak saihesten nabilelako aspaldi.
Hitzak heldu dira baina ez ikusiarena eginen dut.

Muga ondoko herri batean bizi gintezke
Eta elkar maitatzen ikasi
Horrela ez ginateke atzerritar sentituko
Kotxe alokatua gida genezake
Eta bidean idatzitako txostenak desagerrarazi
Damua atzendu eta sentimendu berriak eraikiz
Ipuin berriak idatz genitzake
Zer naizen dioten sententzia orriak
Atzeko aldetik erabiltzen beti ere

Oinazeari eusteko ezagutza nonbaiten aditurik
eta baita itzultzeko unea ezagutzeke ere
pilatu zitzaizkizuen abian jarri gabeko plangintzak.
Gu ez gaituzte harrapatuko errepikatzen zenuten
alde egiteko erabakiak berandu hartzen direla
jabetu gabe.
Bitartean auzokoak ez dabiltza marmarrean ohi
bezala;
auzokoek badakite nola balkoian paratu
aspaldian ahaztutako frogen errebindikazioak;
ez dakite, ordea, gure sufrimendua hautazkoa den
ala ez.

Bizirik aterako banintz gela karratu honetatik
seinaleak egingo nizkieke erbesteratuei
errukirik gabe bakardadeari eusten badiote
bederen.
Gero orube abandonatu batera joanen ginateke
denok;
bateraezintasun aitorpenak oro bertan behera utzita
eraikiko genuke geure ziutatea
leihorik gabeko etxeekin.

Nire alde esanen nizukeen
Lekukoek esan ohi duten oro
Adorez erantzungo dizkizut
Zure isiltasunak eginiko galdera guztiak
Azken aitorpena izanen dela agintzen dizut
Gorroto ditudalako froga aringarriak
Nirea baita gorrotoa
Nirea baita maitasuna

Udaberriak abandonatu duen
haize laranja dabil.
Zakar guztiak barreiatu ditu
zarata monotono batez;
karrikak jende gutxirekin gelditu dira,
leihoak gainezka.
Nor sartu ote zaigu gurean?
Nork utzi digu berritasun hori guztia
apaletan pilaturik?
Nik gutun mingarriak idazten
ikusi nuen,
garaipena agerian uzten duten horiek,
hari ez baitio haize laranjak beldurrik ematen.
Gutunak idazteari ekingo diot nik ere
badakidalako erantzunik jasoko ez dudala;
«ezezaguna» boligrafo gorriz idatzirik
bueltatuko dizkidate
erbeste eskari sekretuak.
Nondik ote dator
haize laranja itogarri hori?

Mugarriez bestaldean
ez du zure abizenak helbiderik;
lore ttikiz betetako parajeak besterik ez daude
eta kanpamenduren bat tarteka.

Mugarriez bestaldean
ez dute poetek kontsulta materialik,
horregatik ez da han poetarik.

Maileguan hartu ninduten
hil ninduten esaldiek.
Errepikatu aurretik ordaindu nituen
eta aurreratu zidaten heriotza.

Zauriak konpartitu ditzagun
ospearen kontinentea atzean dugula;
zauriak eta ez malkoak,
horiek berehala lehortzen dira eta.
Preso hartzen ahal gaituzte ospitaleetako langileek,
baina ekarri gaituen ontziaren kolorea ez dute
jakingo sekula.
Ni morea zu orobat, ni haustura zu berria.
Aitor dezakegu gure iragana hondoratu zela,
baina ez dugu amore emango
azalpenak nahi dituztelako,
ez arrazoiak.

Egun galduak ditut gogoan
zurekin nagoenean.
Izan ere, eromena zor dizut
eta igande arratsaldeak nire bihotzean.

Aitortu nahi ez badut ere,
senargai bila nabil aspaldi honetan,
alaitasun dekretatuaren bila, apika.
Nire herrian arrotza naiz
eta eskertuko nuke mutila kanpokoa balitz,
horrela hemendik alde egiteko aitzakia izango nuke.
Ez zaiteztela larritu:
gustatzen zaizkit hasierak
sugandila bezalakoa bainaiz,
isatsa behin eta berriz hazten zaien horietakoa.
Gainera, gaizki aterako balitzait,
esperientziak erakutsi dit
ez dagoela sufrimendu amaigaberik.
Bakardadeak ez nazala gailen;
horixe da nire anbizio bakarra.

Aspaldiko partez,
gaur goizean ikusi zaitut
eta, egia esan,
galdutako kartera
bueltatzen dizutenean bezala
sentitu naiz:
hasieran ilusio handiz
hartzen duzu,
baina, gero,
kartera irekitakoan
hutsik dagoela
ohartzen zarenean,
desilusioa besterik
ez duzu sentitzen.
Harrigarria
zure bizitzaren ardatz zenuenak
desilusioa besterik
ez sorraraztea.
Lasaigarria,
bestalde,
karterarik gabe

lasai asko
bizi zaitezkeela
jakitea.

Maite dugu
ulertzen ez duguna
eta maite dugunari
uler gaitzan
eskatzen diogu.

Ahalegin antzuak
egiten ditugu
maite nahi ez duguna
ez maitatzearren
eta, lortzen ez dugunean,
fribolitatez
estaltzen dugu
gure sufrimendua.

Badakizu ez naizela
naizen bezalakoa,
Mediterraneoko ur epeletan
galdu baitzen nire isla gardena.
Istanbulen nago
probokazio imintzio ororen zain,
patxadaz betetako
anfora koloreztatuen edukia
itsasoko uretan isuriz.
Zure itsasontzia urrutitik ikustean
orduan hasiko da lasaitasuna urrituz
eta anfora horiek
berriz ere beteko ditut,
emeki.
Menderatuko ditugu
mendebaldetik datozen
haize epelak,
esentziaz betetakoak.
Ez gara ikaratuko
itzulbiderik ez dagoela jakitean,
ez dugulako sorterrira itzuli nahi.

Ez da ezinbestekoa sorterrira itzultzea.

Ni ez naiz
negar egiten duten horietakoa.
Badakidalako
indiferentziaz bakarrik
lor nezakeela bere arreta.
Badakidalako
ni bezalakoa dela:
behin zerbait lortutakoan
arbuiatu egingo duela;
soilik ezinezkoa dena
nahi duela,
hain zuzen,
ezinezkoa delako.
Horregatik egiten dut negar,
nahiz eta ez naizen
negar egiten duten horietakoa.

Kontatuko dizuet nire historia,
munduko itsaslapurrik zitalarena,
besteei ondasunak lapurtzen zizkiena
harik eta bere duintasun guztia
ebatsi zioten arte.
Ez zen printzesa bat izan,
errege boteretsu baten alaba,
arotz xume baten iloba baizik.
Berak esan zidan
Mediterraneoko itsasoaz landara
bazeudela lur emankorragoak;
berak erakutsiko zizkidala
merkatari aberatsen etxeak zeintzuk ziren.
Eta nik sinetsi egin nion.
Sinetsi egin nion
bere begien berdetasuna bezalakorik
inoiz ez nuelako ikusi,
bere jenio biziak
beste aukerarik ez zidalako ematen.
Nirekin etorri eta

ezer gabe utzi ninduen
itsaso bizi batek bustitako esparruan
ezer gabe ez nintzela ezer esanez.

Soneto bat egidazu
bi hizkuntza ofizialetan idatzirik
ea honela bake prozesuan
zerbait aurreratzen dugun.
Kalteak ordaintzea aukerakoa dela
belaunaldi berriek ez dakitenez,
etsipenean erortzen dira.
Horregatik nahiago ditut fakturak,
Brooklyngo *loft* batean
bizi naizelako aspaldi,
ez gertu eta ez urruti.

Ez dut neure burua entregatuko
propaganda bitarteko gerra honetan.
Poemak idaztera dedikatzen jarraituko dut
arreta handiz ez baitut ibili nahi.
Batzuetan ezinbestekoa da gezurra esatea
edo ezer ez esatea.
Agian problema handiegirik ez dut izan
azkenaldian;
horregatik zubi erraldoietatik
ez naiz sekula pasatzen.
Ohar sekretuak
ofizialki Azerbaijan diren eskualdeetan.
Frogak.
Ez dut neure burua entregatuko
propaganda bitarteko gerra honetan.